

IRAKURKETA-GIDA

Errima errebeldeak


Roald Dahl

begiko

Errima errebeldeak

Roald Dahl

LIBURUAREN AURKEZPENA



Egilea

Roald Dahl, aita eta ama norvegiarren semea, Galesen jaio zen, 1916an, eta Oxforden hil, 1990ean.

Oso eskola-bizitza zorrotza izan ostean, Afrikara joatea erabaki zuen, Shell Oil petrolio-konpainiarekin lan egitera. Bigarren Mundu Gerra hasi zenean, Erresuma Batuko Aireko Armadan (*Royal Air Force*, RAF) sartu zen hegazkin-pilotu, baina hegazkin-istripu baten ondorioz, zerbitzua utzi behar izan zuen. Horrek aukera eman zion literatura-sorkuntzan aritzeko. Helduentzako beldurrezko, misteriozko eta fantasiako eleberriak eta ipuinak idatzi zituen, baita zinema-gidoiak ere, eta batez ere, haurrentzako liburuak. Haurrentzako istorioen XX. mendeko kontalari handienetako bat dela esaten da. *Matilda* eta *Charlie eta txokolate-lantegia* dira haren lan ezagunenetako batzuk, arrakasta handiz eraman direlako zinemara.

Irudigilea

Quentin Blake 1932an jaio zen, Sidcupen (Ingalaterra). Eskolan zegoenean hasi zen marrazten, eta hamasei urte baino ez zituenean, lehenbiziko aldiz haren marrazki batzuk argitaratu zituzten, *Punch* umorezko aldizkarian. Cambridgeko Unibertsitatean Filologia ikasketak egiten ari zela, hainbat argitalpenetan jarraitu zuen marrazkiak egiten. 1960an argitaratu zuten haren lehen lana. Harrezkero, haur eta helduentzako liburuak –batzuk berak idatzia– irudiztatzen aritu da.

1965. urteaz geroztik Londresko Royal College of Art eskolako irakaslea da. Haren marrazteko era erraz identifikatzen da, bat-batekotasunagatik eta itxura soila duelako. Estilo arin horren trazuetan jenio bat bereiz daiteke, umorea, samurtasuna eta gatz eta piperra bikain nahasten dakien artistaren talentua.

Espainian, haren lanak hedapen oso zabala izan du, batez ere Roald Dahlen liburuetarako eginiko ilustrazioek. Dahlek berak halaxe esan izan du bere adiskide eta lankideari buruz: «Niretzat ez dago munduan haurrentzako liburuen irudigile hobirik».

Liburuak

Liburuak haur literaturako sei ipuin klasiko berrikusten ditu, modu oso originalen. Esate baterako, Mari Errauskin bereziak arbuia egingo du printzea eta mar-meladak prestatzen dituen gizon fin batekin ezkontzea erabakiko du; babatxo miragarriak urrezko landare erraldoi bat sortuko du bere ernamuietik; Edurne Zurik auto-stop egingo du basotik ateratzeko, eta zazpi gizontxo oso atseginen giltzari lanak egingo ditu; Hartz familiak ere ez du erreparorik izango Urre Kizkur jateko, eta Txanogorritxok berak ere gutxi du neska otzan eta zintzotik.

Zergatik irakurri liburu hau?

Ipuin klasikoak haurren oso gogokoak izan ohi dira, eta horixe baliatzen du Roald Dahlek istorioei eta pertsonaiei ezusteko jira bihurriak emateko eta haurrak harritzeko, bertsoen soinu eta errimekin jolas eginez, gainera.

Ipuinen bertsio burutsu hauek gainezka dituzte gatza eta piperra, grazia eta malezia, irakurleengan sortzeko barrea eta irria.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

ARLOKO GAITASUNAK

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, euskaraz eta haren hizkuntza sistemaz gozatzeko.

Metrika eta literatura-baliabideen existentziaz jabetzea (doinua, neurria eta errima).

Literatura klasikoko eta haur-literaturako lanak irakurtzea, ulertzea eta norberaren esperientziak besteenekin kontrastatzea.

Literatura-testua mundua ulertzeko leihoa izatea.

Zientziarako gaitasuna

Jon eta babatxo miragarria irakurri ondoren, higieneari buruzko arauak errespetatzea zeinen garrantzitsua den ikastea.

ZE HAR-GAITASUNAK

Elkarbizitzarako gaitasuna

Pentsaera eta izaera ezberdina duten pertsonak ulertu eta aintzat hartzea.

Pertsonak ez epaitzea euren sorterrria, gizarte-jatorria edo ekonomia-mailaren arabera.

Urre Kizkur eta hiru hartzak irakurriz, besteenak diren gauzak errespetatzen ikasiko dute.

Izaten ikasteko gaitasuna

Betiko pertsonaia ospetsuak auzitan jarritz, norberaren begirada kritikoa garatzea eta sustatzea.

Edurne Zuriren ipuina oinarritzat hartuta, komunikabideek gorputzaren gainean zabaltzen dituzten mezuak eta estereotipoak ikuspegi kritiko batetatik aztertzea.

Animalien kontrako indarkeriari buruz gogoeta egitea.

Balioetan hezte

Ipuinen ezusteko bukaerak edo istorioen eta pertsonaien aldaketak egokiak dira sormenaren bidez estereotipoetatik ateratzeko: Mari Errauskinek printzea beharrean gizon arrunt bat aukeratzea lagungarri da egunerokoa eta hurbilekoa ederra izan daitekeela konturatzeko; Txanogorritxok otso basatia hiltzea eta haren larruarekin beroki bat egitea argigarria izan daiteke ohartzeko inor ez dela *a priori* pentsa litekeen bezain zintzoa edo gaiztoa.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Irakurketari aurre hartuz

Roald Dahl jenialaren lana irakurtzen hasi aurretik, irakurgaiarekin loturiko zenbait jarduera proposatuko dizkiegu hurrei, eta horien bidez aurrea hartzea landuko dugu eta irakurketa gidatua egiteko prestatuko ditugu ikasleak, ondoren testuaz bete-betean goza dezaten.

Hasteko, titulua idatz dezakegu arbelean, eta zer egiten zaien deigarri galde diezaiekegu. Idatz al daiteke ipuinik bertsotan? Ba al dakite zer esan nahi duen *errebelde* hitzak? Nolakoa izango da ume errebelde bat? Izenburuak berak ere hitz-joko bat iradokitzen du: antzematen al diote?

Interesgarria da *errebelde* hitzaren esanahia azaltzea. Pertsona errebeldea bihurria, hezigaitza da «ezarritakoari, gauzen ohiko ordenari eta ohiturei aurre egin eta horiek auzitan jartzen dituen». Alde horretatik, liburu honetan berregindako ipuin klasikoetako protagonistak, haurrak bederen, errebeldeak dira; izan ere, ez dira ohiko ezaugarrietara errenditzen. Azaleko ilustrazioak ere indartu egiten du ideia hori, otsoak jarrera maitekorra agertzen baitu, hurrei ipuinak irakurtzen.

Aurrea hartzeko gaitasunak lantzeko proposamen hau ixte aldera, liburuari begiratu bat emateko eskatuko diegu, eta irakurtzeko ipuinen tituluak, ea ezagutzen dituzten ala ez, eta ezagutzen badituzte, galderak egingo dizkiegu: ea gustuko dituzten, zein duten gogokoen eta abar.

Istorioak alderatzea · 1. jarduera

Ipuin bakoitza irakurri aurretik, ikasleei eskatuko diegu gogora dezatela zein den istorio tradizionala: nortzuk dira protagonistak? Zein da haien istorioa? Zein da gaiztoa?

Irakurri ondoren, alderatu egingo ditugu jatorrizko istorioa eta Dahlen bertsioa, egileak ipuin bakoitzean zer aldaketa egin dituen ikusteko. Oro har, bien arteko alde horietan oinarritzen da testuaren komikotasuna.

Laguntzeko, zenbait galdera egin ditzakegu, arrasto batzuk emate aldera. Adibidez, zer egiten du Mari Errauskinek etxean bakarrik geratzen denean, Ahizpa Zatarrak jauregiko festara joan direlako? Zer egiten du printzeak Marik ihes egindakoa? Komeniko litzateke jakitea ea ikasleek nola jaso dituzten istorio klasiko hauek: filmak ikusi ote dituzten soilik edo ipuinak ere irakurriak dituzten.

Hau olerki bat da · 2. jarduera

Jarduera honen xedea da bertsoen izaera erritmikoa nabarmentzea, eta ikasleei errimaren doinua hautematen eta horretaz gozatzen laguntzea.

Errima errebeldeak obrako bertso batzuen segida jakin batean errimatzen duten hitzak adierazteko eskatuko diegu. Ondoren, errima bereko beste hitz batzuk esan behar dituzte.

Amaitzeko, liburuko ipuinetako baten bertsoak osatzeko eska diezaiekegu, azken hitza aldatuz, baina edukiari ere erreparatuz.

Mari Errauskin · 3. jarduera

Mari Errauskin-eko pertsonaiak oso bestelakoak dira ipuin tradizionalekoekin alderatuta, eta, hain zuzen, diferentzia horietan datza ipuinaren komikotasunaren alde handi bat.

Roald Dahlen ipuinean Mari Errauskin eta printzea deskribatzen dituzten adjektiboak edo jarrerak aurkitzeko eskatuko diegu ikasleei, eta, ondoren, horiek erabiliz, bien erretratua idazteko.

Beste proposamen bat izan daiteke istorioa zer unetan aldatzen den aurkitzea. Printzeak zapata aurkitzen duen unetik aldatzen dela argi geratzen denean, ikasleei eskatuko diegu hortik aurrerako gertakari garrantzitsuenen zerrenda bat osatzeko, testuaren ideia nagusiak nabarmentze aldera.

Hau kiratsa! · 4. jarduera

Mari Errauskin ipuinarekin beste jarduera hau ere proposatuko diegu: kristalezko zapata panpoxa abarketa usaintsua nola bihurtzen den arretaz ohartzea. Burutazioaren gatz eta piperra berreskuratzeaz gain, haurrei eskatuko diegu Ahizpa Zattarraren abarketari buruzko adjektibo guztiak bilatzeko eta kopiatzeko. Jarduera osatzeko hiztegia erabil dezakegu, ezagutzen ez dituzten hitzen esanahia bilatzeko.

Egileak erabiltzen dituen adjektibo gutxiesgarriak baliatuz, haurrei proposatuko diegu bila ditzatela beste modu batzuk hori bera adierazteko baina bestelako asmoekin. Haurrek askotariko egoera eta testuingurutan jarri beharko dute, eta, horien arabera, sentipen bera adierazteko hitz desberdinak bilatu beharko dituzte, aurrez adierazitako bilaketa zabaltzeko.

Ipuin modernoak · 5. jarduera

Roald Dahlek gaur egungo objektu, ekintza eta esamoldeak sartzen ditu antzinako ipuin klasiko hauetan, istorioa gure garaian gertatzen dela adierazteko, eta, hain zuzen, baliabide horren bidez lortzen du harridura eta egoera barregarriak sortzea.

Edurne Zurik auto-stop egiten du, Jonen amak Rolls-Royce bat nahi du eta Txanogorritxok ile-lehorgailu bat erabiltzen du. Gako horiek aurkitzea ariketa polita da ikasleak erne eta adi irakurtzen trebatzeko, eta testu batean denborazkotasuna adierazten duten hitzak aurkitzeko gaitasuna lantzeko.

Banakako fitxetan proposatutako jardueran, ikasleek bi ipuin aukeratu behar dituzte, eta, modernotasun-zantzuei erreparatuta, gaur egungoa izan daitekeen egoeraren bat deskribatu behar dute.

Irakaspen garbia · 6. jarduera

Jon eta babatxo miragarriaren ipuina bainua hartzeak dituen onurei buruzko ikasbide barregarri batekin amaitzen da, alegia baten antzera.

Mezu zifratu batean ezkutatutako irakaspen hori aurkitzeko proposatuko diegu ikasleei. Eta testua ondo ulertu dutela ziurtatzeko, Jon ondorio horretara nola iritsi zen azaltzeko eskatuko diegu.

Edurne Zuri gaur egun · 7. jarduera

Edurne Zuriren kontakizunean barregarriena da zeinen urrun dagoen ipuin tradizionalaren ingurune bukolikotik. Gazteak auto-stop egiten du patuari itzuri egiteko, eta zazpi gizontxo langile eta adeitsuekin topo egin beharrean zazpi *jockey*-rentzat (seguru asko haurrek ez dute hitz hori ezagutuko) lanean amaituko du, zazpi apustuzale amorraturentzat.

Egokia da tarte batean haurrekin *jockey*-en ezaugarri fisikoei buruz hitz egitea, eta egiten duten lanerako ezaugarri horiek zergatik diren onak azaltzea.

Jarduera hau bi zatitan banatuko dugu. Aurrenekoan, ikasleek hiru lanbide imajinatu beharko dituzte, eta ezaugarri fisiko jakin bat edukitzea, hala nola nanoa edo oso-oso txikia izatea, abantaila izango da horretan jarduteko. Betiko lanbideez gain, asmatu ere egin ditzakegu batzuk: zokalo ikuskatzailea, lokarri lotzailea... Bigarren zatian, lan hori egiteko lagungarri izan daitekeen objektu magiko bat pentsatzeko eskatuko diegu.

Bi zatiak bateratzeko, hiru lanbideetako bat aukeratzeko adieraziko diegu, eta pertsonaia eta objektua marrazteko, nahi duten teknikarekin.

Ipuina gaurkotzea xede duen jarduera hau zabaltzeko, gogora dezakegu ispilu magikoak galderei erantzuten diela. Zer galde diezaiokegu? Ikasleekin egin dezakegu jolas. Tarte bat emango diegu beren galdera pentsa dezaten, eta ahozko galderen txanda bat egingo dugu.

Jolasari gatz eta piper pixka bat jartzeko, proposa diezaiekegu lagunarentzat ez hanka ez buru ez duen erantzunen bat duenak eskua jaso eta erantzun dezala.

Ozen: Ipuin bat erreztatuko dugu

Testuaren bertso eta errima egitura ezin hobea da ahots gora irakurtzen trebatzeko, erritmoa eta doinua errespetatuz.

«Errima errebeldeak» lan honetako azken ipuina, «Hiru txerritxoak», batek hasi eta besteak jarraitu, txandaka-txandaka irakurtzeko proposa diezaiekegu ikasleei. Ipuin hau bereziki egokia da jarduera honetarako; izan ere, ez da oso luzea, estilo zuzenean erreproduzitzen du pertsonaia batzuen eta besteen ahotsa, hamahiru silabako metrika erregularra du, eta elkarriketa ugari ditu.

Nork aurkituko du errima?

Testuaren doinuari buruzko beste jarduera batean, bitan zatituko dugu ikasgela. Gu- txienez orrialde bateko pasarte aukeratuko dugu, eta errima duten hitzak baino ez ditugu irakurriko. Talde batek hasierako bertsoaren hitz jakin hori irakurriko du, eta beste taldeak hurrengo bertsoan dagokion hitz errimaduna soilik erantzungo du.

Baloratu

Pertsonaia onberak, ausartak, dibertigarriak, bihurriak...

• 8. jarduera

Ipuin bakoitzeko pertsonaiei buruz sakonduko dugu, eta ikasleei eskatuko diegu haien bereizgarriak azaltzeko: Zer pertsonaia da oso bihurria? Zein iruditu zaie dibertigarria? Eta eskuzabalena? Kasu guztietan, arrazoitu egin beharko dute zergatik aukeratu duten pertsonaia hori.

Fitxan, Bizarne Lepotente andrea jarri dugu adibidetzat, bekaiztia eta maltzurra, Eduarne Zuri hiltzeko agindu zuelako.

Pertsonaiek ikasleei eragindako inpresioei buruz egingo dugu gogoeta, eta, bereziki ea dibertigarria edo desatsegina egin zaien pertsonaia ezagunak ezohiko egoeretan ikustea: maltzurkerietan edo hainbat egoera espero ez den moduan, ez oso zuzen eta batzuetan indarkeriaz konpontzen.

Hasteko, liburua eskuetan hartuta, ipuinak berrikusi ditzakegu, aurkeztutako ordena berean, eta arbelean idatz ditzakegu ipuin bakoitzeko pertsonaien izenak, ipuinaren titulua adierazi beharrik izan gabe.

Ikasleen arteko trukea bultza dezakegu; hala, batzuek eta besteek pertsona horien ezaugarriak zein diren adierazi beharko dute. Proposamen hau oinarri sendoa izango da 8. jarduera osatu ahal izateko.

Eztabaida: Jon semeari hainbat izen eta izenondo jartzen dizkio amak · 9. jarduera

Seguru asko ikasleei oso barregarria irudituko zaie amak nola iraintzen duen semea «Jon eta babatxo miragarria» ipuinean, baina interesgarria litzateke egokiera baliatzea elkarren artean errespetuz eta inor iraindu gabe tratatzeari buruz gogoeta egiteko.

Fitxan, hainbat irain eta esamolde agertzen dira, batzuk testutik hartutakoak eta beste batzuk ez, nahiz eta gisa berekoak izan, eta haurrei eskatuko diegu ipuinean agertzen direnak bereizteko.

Talde-lanarekin amaitzeko, eztabaida bat antolatuko dugu gelan. Garrantzitsua da denek parte hartzea, eta, beraz, bi talde edo gehiago osa ditzakegu, bakoitzak iritzi eta jarrera desberdinak defenda ditzan.

Galderak horretara bideratuko ditugu: hitzezko erasoak ere indarkeria direla ikusaraztera, eta horien aurrean oso erne egon behar dugula ohar-taraztera.

Eztabaida antolatzeko, horrelako indarkeriazko harreman edo egoerak sortu ohi diren zenbait ingurune identifikatu ditzakegu: familia, eskola, kalea...

Sortu

Ipuinekin karta-jokoan

Ikasleei proposatuko diegu hogeita lau kartako sorta bat prestatzeko, sei ipuinak oinarri hartuta.

Sei laguneko taldetan banatuko dugu ikasgela, eta taldekide bakoitzari ipuin baten ardura emango diogu.

Ordena eraginkor bati jarraitzeko, honako urrats hauei jarriko diegu arreta:

- Haur bakoitzak 6 x 6 cm-ko kartoi mehezko lau txartel ebakiko ditu.
- Batean, egokitu zaion ipuinaren izenburua idatziko du, eta beste hiruetan istorio horren hiru ilustrazio fotokopiatu eta itsatsiko ditu.
- Behin 24 kartak prest daudenean, ondo nahastu eta haur bakoitzari launa banatuko dizkiogu.

Jolasaren funtsa da ipuin beraren lau kartak batzea. Horretarako, denek batera, hainbat txandatan, karta bat pasako diote eskuineko lagunari. Lauak batzen dituen aurrenekoak erdian jarri behar du eskua eta oihu egin: «Ipuina!».

Idazlearen lanbidea: *Beste pertsonaia batzuk, bestelako abentura batzuk*

Jarduera honen hasieran, Roald Dahlek errima errebelde hauetan aurkeztutako bertsoen, burutazioen eta burugabekerien grazia nabarmenduko dugu. Komikotasuna eta umorea lortzeko erabiltzen dituen baliabide literarioak berreskuratuko ditugu: ezusteko gertaerak egoera ezagunetan, antzaldatutako pertsonaiak, protagonisten jokabide muturrekoak eta ez-zuzenak...

Ondoren, beste ipuin batzuk oroitzeko proposatuko diegu haurrei; adibidez, Loti Ederra, Aladino, Rapunzel, Hansel eta Gretel, eta pertsonaia horientzat beste pasadizo batzuk asmatzera jolastuko gara. Beste aukera bat da, taldeka, beste errima errebelde batzuk idazteko proposatzea.

Istorio bat asmatzerakoan sormena eta jarioa aberasteko, talde-joko bat planteatuko dugu: haurrek istorio bat imajinatu eta kontatu behar dute, txandaka-txandaka, bakoitzak gehitutako gidoiari erantzunez. Hasieran, ikasle guztiekin egingo dugu lan, eta, ondoren, talde txikiagoak osatuko ditugu, haurren konfiantza eta parte-hartzea bideratzeko.

Nire hitzekin · 10. jarduera

Jarduera honetan, ipuineko estrofak aurkeztuko dizkiegu haurrei, eta edukia beren hitzekin azaltzeko eskatuko diegu, bi helbururekin: batetik, irakurmena sendotzea, eta, bestetik, idazketan trebatzea.

Hautatutako bi estrofak, edukiagatik, errazak dira hitz soilen bidez azaltzeko eta berregiteko. Hain zuzen, 11. eta 29. orrietako estrofa berak dira. Jarduerarekin jarraitzeko, beren gogoko estrofa bat aukeratzeko eskatuko diegu haurrei, eta ariketa bera egiteko.

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

1. jarduera · Istorioak alderatzea

- Seguru badakizula bereizten aurrez irakurriak dituzun ipuin klasikoak eta liburu honetan bertsoan kontatutakoak. Ikusi adibidea eta osatu besteak.

Ahizpa Zatarrak jauregiko festara joan eta Mari Errauskin sukaldean geratzean...

Ipuin klasikoan, Errauskinek negar egiten du, berak ere joan egin nahi baitu.

Errima errebeldeetan, Mari eroaren pare hasten da builaka eta hormaren kontra ukabilka, maitagarria etor dadin.

Ehiztariak Edurne Zuri salbatzen duenean eta basoan uzten duenean...

Ipuin klasikoan, Ehiztaria

.....

Errima errebeldeetan, Ehiztaria

.....

Otsoa Txanogorritxo moztaratu zenean...

Ipuin klasikoan, Txanogorritxo

.....

Errima errebeldeetan, Txanogorritxo

.....

Otsoak hirugarren txerriaren adreiluzko etxea bota nahi izan zuenean...

Ipuin klasikoan, txerriak

.....

Errima errebeldeetan, txerriak

.....

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

2. jarduera · Hau olerki bat da

Ea gai zaren bertso hauen errimari antzemateko. Irakurri estrofak, erreparatu beltzez nabarmendutako hitzari eta biribildu egokia iruditzen zaizun hitza.

Liburu hau zuretzat da **maitea**,
zuri eragiteko *negarra / irribarrea*
edo egiteko barre-karkaila **ikaragarriak**
ez baitituzu aintzat hartzen
ipuinetako *maitagarriak / sorginak*.

Mari Errauskinek popatik bidaliko du **printzea**
berak nahiago baitu senartzat
zapataria / marmelada egilea.

Otsoa da ausarta eta **pikaroa**
eta lastozko etxearen jabea
txerritxo bihurria / tontolapikoa.

Eta Jon gaztetxoa,
despistatua eta **babalastoa**,
etxeko *Gorri* behiaren truke zer ekarriko
eta *urrezko pitxarra / babatxoa*.

Eta Txanogorritxo da
oso azkarra eta **adoretsua**;
otsoa, berriz, beldurti hutsa
ez baita gai
jateko neskatoa / hari beldur eragiteko.

Ipuineko ispiluak
du ahalmen **bikaina**
asmatu baitu zaldi-kiniela
eta bihurtu ditu zazpi ipotxak
erraldoi / aberaskilo alajaina!

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

3. jarduera · Mari Errauskin

Nolakoak dira Mari eta printzea Roald Dahlen bertsoan? Deskriba itzazu zure hitzekin.

Mariren deskribapena	Printzearen deskribapena

4. jarduera · Hau kiratsa!

Aurkitu «Mari Errauskin» ipuinean Ahizpa Zatarraren abarketa deskribatzeko erabiltzen diren adjektiboak. Kopiatu taulan eta idatzi haien esanahia. Hitzen bat ezagutzen ez baduzu, hiztegia kontsulta dezakezu.

Bururatzen al zaizu beste hitzen bat, aurrekoak bezain kirasduna?

Adjektiboa	Esanahia



IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

5. jarduera · Ipuin modernoak

Liburu honetako ipuinetan gaur egungo objektuak, ekintzak eta esamoldeak agertzen dira, istorioa bera gure egunean kokatzeko. Adibidez, Edurne Zurik auto-stop egiten du eta Txanogorritxok ile-lehorgailu bat erabiltzen du. Aukeratu bi ipuin eta idatzi ezaugarri hori adierazten duten egoerak.

Ipuina:
Gaur egungo egoerak edo elementuak:

Ipuina:
Gaur egungo egoerak edo elementuak:

6. jarduera · Irakaspen garbia

- Aurkitu «Jon eta babatxo miragarria» ipuinak uzten digun irakaspena.

∞	h	x	ɣ	ə	ʃ	ʌ	ŋ	v	ɹ	k	ɔ	ʔ	v	ð	ø	π	θ	ρ	◆	τ	ħ	φ	ω	χ	ψ	ζ
a	b	c	d	e	f	g	h	i	j	k	l	m	n	ñ	o	p	q	r	s	t	u	v	w	x	y	z
h	∞	v	v	∞	τ	ζ	ə	∞		ə	ζ		ɣ	∞		τ	χ	∞	ρ	ρ	∞					

- Azaldu zure hitzekin nola iritsi zen Jon ondorio horretara.

.....

.....

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

7. jarduera · Edurne Zuri gaur egun

- Zenbait lanbidetan nanoa edo oso txikia izatea abantaila izan daiteke. Imaginatu horrelako hiru ofizio. Betiko lanbideez gain, asmatu ere egin ditzakegu batzuk: zokalo ikuskatzailea, lokarri lotzailea... Ondoren, pentsatu pertsonaiak bere eginkizuna betetzeko beharko lukeen objektu magiko bat.

Lanbidea	Objektu magikoa

- Orain, marraztu asmatu duzun pertsonaietako bat, hari dagokion lan-tresnarekin.

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

8. jarduera · Pertsonaia onberak, ausartak, dibertigarriak, bihurriak...

Ekarri gogora ipuin hauetako pertsonaiak. Badakizu batzuk onberak direla, beste batzuk dibertigarriak edo ausartak, badira beti ilargian daudenak, bihurriak... Idatzi pertsonaia hauek bereizten dituen/dituzten ezaugarria(k), eta zure aukeraketaren arrazoia. Hemen duzu adibide bat.

BIZARNE LEPOLENTE ANDREA zitara eta maltzurra da;
izan ere, Edurne koitadua hiltzeko agindua eman zuen.

MARI da;

izan ere,

EHIZTARIA da;

izan ere,

JON da;

izan ere,

URRE KIZKUR da;

izan ere,

TXANOGORRI da;

izan ere,

.....

9. jarduera · Jon semeari hainbat izen eta izenondo jartzen dizkio amak

Gogoratu «Jon eta babatxo miragarria» ipuina. Hitzen zerrenda honetan Jonen amak semeari esaten dizkion irain batzuk daude. Biribildu.

ANIMALIA	ZORROTZA	LERDOKATILUA	BABALASTOA
ARTABURUA	TXAPUZEROA	MADARIKATUA	KOKOLOA
MENGELA	LOTIA	SASIJAKINTSUA	SASKILA

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

10. jarduera · Nire hitzekin

Idatzi zure hitzekin zer esan nahi duen egileak estrofa hauetan.

Ondoren, aukeratu interesgarria iruditu zaizun beste estrofa bat eta egin ariketa bera.

Printzeak heltzen zion Maritxuri gogor, paparra aterata, nahiko erasokor; gizona han zebilen jan beharrik neska, arnasestuka eta txistua irenska.	
Edurneren ama hil eta berehala, Errege, haren aita, kexatu zen hala: «Hau da atsekabea! Neu bizi naiz txarto! Orain beste andre bat topatu beharko!».	

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

Irakurmen-testa

Pentsatu ondo galderetan, eta markatu erantzun zuzenak.

1. Zer izenburu du lanak?

- ☐ a Errima errebeldeak.
- ☐ b Errebeldeen errimak.
- ☐ c Haur errebeldeentzako errimak.

2. Zer erritmo dantzatu zuen Marik printzearekin?

- ☐ a Baltsa.
- ☐ b *Rocka*.
- ☐ c Popa.

3. Zer egin zuen Marik lepoa salbatzeko eta printzeak burua ez mozteko?

- ☐ a Korrika atera zen etxetik eta inork ez zuen gehiago jakin haren berri.
- ☐ b Maitagarriari eskatu zion salba zezala gizon zintzo batekin ezkondata.
- ☐ c Printzea Mariz maitemindu zen, eta ez hiltzea erabaki zuen.

4. Zer auto nahi du Jonen amak?

- ☐ a Minia.
- ☐ b Rolls-Roycea.
- ☐ c Audia.

5. Zergatik uste du Jonen amak erraldoiak ikusi gabe usaindu zuela semea?

- ☐ a Jonek urte bat edo bi zeramatzalako dutxatu gabe.
- ☐ b Jon hilean behin baino ez delako dutxatzen eta akerraren usaina duelako.
- ☐ c Erraldoiak ahalmen handiko sudurra eta usaimena dituelako.

6. Zer haragi puskarekin engainatu zuen ehiztariak Bizarne erregina?

- ☐ a Orein-okel gozoarekin.
- ☐ b Idi-bihotz batekin eta dozena bat saihetsekin.
- ☐ c Arkume eder batekin.

IZENA: MAILA:

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

7. Zer zaldiri esker irabazi zuten zazpi ipotxek lehen apustua? Zer izen du zaldia?

- ☐ a Lapatx.
- ☐ b Ipotx.
- ☐ c Apatx.

8. Zer atera zuen Txanogorrik gonapetik otsoa paretik kentzeko?

- ☐ a Eskopeta bat.
- ☐ b Pistola bat.
- ☐ c Errifle bat.

9. Txerritxo nagusiak Txanogorritxori telefonoz hots egin zionean, zer esan zion aurren-aurrena?

- ☐ a Gorri familia?
- ☐ b Kaixo, Txanogorritxo? Neu nauzu, Txerrito!
- ☐ c Bai, nor da?

10. Nola bukatzen da Urre Kizkur ipuinaren bertsio hau?

- ☐ a Neska espetxeratu egingo dute, gaizkile izateagatik.
- ☐ b Hartz Kumeak jan egingo du.
- ☐ c Onik aterako da ataka guztietatik.

Erantzunak

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

1. jarduera · Istorioak alderatzea

- Ipuin klasikoan, Ehiztariak basurde bat hiltzen du eta haren bihotza erreginari ematen dio.
- Errima errebeldeetan, Ehiztaria harategi batera sartzen da eta idi-bihotz bat eta dozena bat sahiets erosten ditu.
- Ipuin klasikoan, Txanagorritxok otsoari zeinen hagin zorrotzak dituen esaten dio.
- Errima errebeldeetan, Txanagorritxok soinean zeinen beroki ederra daraman esaten dio.
- Ipuin klasikoan, txerritxoek ura irakiten jartzen du tximiniaren azpian otsoa erre dadin.
- Errima errebeldeetan, txerritxoek telefonoa hartzen dute eta Txanagorritxori hots egiten diote laguntza eske.

2. jarduera · Hau olerki bat da

irribarrea, maitagarriak

marmelada egilea

tontolapikoa

babatxoa

jateko neskatoa

aberaskilo alajaina

3. jarduera · Mari Errauskin

Mariren deskribapena: Mari ez da emakume goxoa ipuin klasikoan bezala, haserrekorra eta gartsua da. Umila ere bada, izan ere nahiago du senargai langilea diruduna baino.

Erantzunak

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

Printzearen deskribapena: Printzea erasokorra da eta Marirekin ez da oso galanki portatzen. Gainera, ez da batere errukiorra; izan ere, jendeari burua mozten dio bitan pentsatu barik.

4. jarduera · Hau kiratsa!

Likitsa	Zikina, lizuna
Usaintsua	Zerbaiti edo norbaiti usaina dariola
Zabala	Hedadura handikoa
Izerditsua	Izerditan blai egotea

5. jarduera · Ipuin modernoak

Ipuina: Edurne Zuri

Gaur egungo elementuak: auto-stop egitea, harategia, hiria, neskame, zaldi-jockeyak, apustuzaleak, kiniela, banketxea...

Ipuina: Txanogorritxo

Gaur egungo elementuak: ile-lehorgailua, parrandaren ostea, look aldaketa, otso larruzko berokia...

6. jarduera. Irakaspen garbia

B	A	I	N	A	T	Z	E	A		E	Z		D	A		T	X	A	R	R	A
---	---	---	---	---	---	---	---	---	--	---	---	--	---	---	--	---	---	---	---	---	---

7. jarduera · Edurne Zuri gaur egun

E.L.

Erantzunak

ERRIMA ERREBELDEAK

Roald Dahl

8. jarduera · Pertsonaia onberak, ausartak, dibertigarriak, bihurriak...

MARI haserrekorra da; izan ere, Maitagarriri festara eramateko oihukatu dio.

EHIZTARIA onbera eta errukiorra da; izan ere, Edurne Zuri libre utzi du.

JON negozio-gizona eta fina da; izan ere, behi zaharretik atera du etekina.

URRE KIZKUR lotsagabea da; izan ere, hiru hartzen bazkaria jan egin du.

TXANOGORRI ausarta eta kementsua da; izan ere, pistola bat atera du gonapetik eta otsoa paretik kendu zuen.

9. jarduera · Jon semeari hainbat izen eta izenondo jartzen dizkio amak

Artaburua, txapuzeroa, lerdokatilua, madarikatua, babalastoa, kokoloa, saskila.

10. jarduera · Nire hitzekin

- Printzeari Mari gustatzen zaio. Ondorioz, asko hurbiltzen zaio.
- Erregeari nagia sorrarazten dio andregai berri bat topatu behar izateak.
- E.L.

Irakurmen-testa

1 a; 2 a; 3 b; 4 b; 5 a; 6 b; 7 c; 8 b; 9 b; 10 b.